

SORGINXULO LESAKAKO KULTUR-BILGUNEA

39. BILERA AKTA

EGUNA: MARTXOAK 23, LARUNBATA

ORDUA: 9:30-11:00

TOKIA: HARRIONDOA KULTUR ETXEA – ALASTA GELA

BERTARATUAK

GURE ARRANO ELKARTEA

OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA-TANTIRUMAIRU IKASTOLA

BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA

IRAIN GURASO ELKARTEA

GEROA BAI

IRAIN ESKOLA

SAN FERMIN JUBILATU ELKARTEA

TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA

S.C.R.D. BETI-GAZTE K.J.K.E.

LESAKAKO ABESBATZA

LESAKAKO ROQUES ORGANOAREN LAGUNAK

GILTZARRI ABESBATZA

LESAKAKO MUSIKA BANDA

LESAKAKO SOINULARIAK

TRIKITIXA TALDEA

EH BIDU TALDEA

AINTZINAKO AKTA ONARTZEA

Onartzen da.

2024. DIRULAGUNTZAK

Behin betiko esleipena egin ondoren %66,23koa izanen da. Jakinarazpena hurrengo egunetan bidaliko da.

GURE ZIRKUA

Urriaren 6tik 20ra egonen dira Lesakan. Landazelaian jarriko dira, Osasun Etxearen atzean edo txakurren eremuan.

ANDRA MARI EGOITZAREKIN KOLABORAZIOA

Ortziralean Jubilatuen elkarte soinulariekin batera egon zen. Oso gustora eta eskertuak. Urteko egutegia ia osatuta dago. Lesakako Abesbatzak beraien emanaldia irailara pasako dela aipatzen da.

HILABETEA	TALDEA
Urtarrila	
Otsaila	Santa Ageda (Ikastola)
Martxoa	Jubilatuak 22an, 16.30etan soinulariak
Apirila	Dantza taldea
Maiatza	Trikitixa
Ekaina	Beti Gazte Lerroa Zarandia ortzerala (Giltzarri)
Uztaila	
Abuztua	
Iraila	Txistulariak
Urria	Abesbatza
Azaroa	Bertso-Eskola - Kantu bira
Abendua	Gabon kantak (Irain Eskola) Abesbatza 28/Trikitixa

SANFERMINAK 2024

Aste Santuko oporren bueltan batzordea deituko da. Taldeak, emanaldiak...batzordean erabaki nahi badira, hurrengo urtera begira batzordea lehenagotik deitu beharko da, kontratazioak urte hasieran egitea komeni da.

AGENDA

Ekaina arteko ekitaldien errepasoa egiten da.

TXOKOBIKO-BOZGORAGAILUA

Dantzakoekin eta Martxelekin solastu ondoren ze motatako bozgoragailua erostea finkatu da. Hurrengo egunetan eskatuko da.

Hurrengo bilera maiatzak 4.